



ALEX TXIKON MANASLUKO C2RA IRITSI DA ETA HURRENGO EGUNETAN ALTUERA IRABAZTEN JARRAITZEA ESPERO DU

- “Aurreikuspenak aztertu ondoren, hurrengo egunetan eguraldi ona datorrela ikusi dugu eta, beraz, pixkanaka altuera hartzen joan behar dugu”

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 04an.- Alex Txikon Manasluko C2ra iritsi da eta, hura hornitu ostean, garaiera hartzen jarraitu nahi du datozen egunetan. Gaurko jardunaldia bizia izan da Txikon eta bere taldearentzat, #WINTERSUMMITS espedizioaren altuerako bigarren errotazioa egin baitute. C2ra oso goiz irten ondoren, ezinbestekoak diren 2 kontu egiaztatu ahal izan dituzte: haizeak gogor jotzen jarraitzen zuela eta Oinarrizko Kanpamentutik C2ra zegoen desnibela (1.500 metro inguru) uste zutena baino gogorragoa izan dela.

Hotza (-63º arteko tenperaturak izatera iritsi dira) eta haize zakarra izan arren, badirudi datozen egunetan eguraldiak arnasaldi bat emango diela. “Aurreikuspenak aztertu ondoren, hurrengo egunetan eguraldi ona datorrela dirudi, beraz, pixkanaka altuera hartzen joan behar dugu. Egia da gorago egon arte ezin izango dugula ibilbidearen egoera egiaztatu, baina ezin dugu aukera hau alferrik galdu. C2ra iristea oso gogorra izan da haizearen eta genekarren material guztiaren ondorioz. Oinarrizko Kanpamentutik material asko ekarri behar izan dugu honaino” baieztatu du Alex Txikonek.

Aztertutako aurreikuspenen arabera, datozen egunetan haizea baretu egingo da (15-55 km/h inguruan ibiliko da) eta zeruak oskarbi jarraituko du. “Taldearen animoa oso ona da. Oso sentazio onekin gaude, motibatuta eta gora egiten jarraitzeko gogo handiarekin. Badakigu gogorra izango dela, baina honetara etorri gara. Hauxe da, hain zuzen ere, gustatzen zaiguna eta prest gaude. Estrategia ona dugu. Ezbeharren aurka borrokatuko gara, gelditu gabe. Saiatu behar dugu, beti modu arduratsuan, noski, baina helburua burutik kendu gabe” amaitu du alpinista bizkaitarrak. Dena aurreikusitakoaren arabera baldin badoa, altuera irabazten jarraitzea da asmoa, eta pixkanaka goiko kanpalekuak hornitzen joatea. Manaslu zain dute.

INFORMAZIO GEHIAGO ETA ELKARRIZKETAK:

BIOK COMUNICACIÓN ESTRATÉGICA





Naroa Hernansanz // naroa@biokcomunicacion.com // 687 13 94 09

MATERIAL GRAFIKOA

<https://prensa.alexixikon.com/>

Erabiltzailea: prensa2021

Pasahitza: txikonmanaslu2022*

